

DATU PERTSONALEN ARLOKO INFORMAZIO POLITIKA: HARREMANAK
Tratamenduaren arduraduna
LAGUNARO SERVICIOS S.COOP (aurrerantzean, LagunAro) Helbidea: Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua 1, PK 20500, Arrasate (Gipuzkoa) IFZ F20040804 Telefonoa: 943 79 01 00 DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIAREN HARREMANETARAKO DATUAK Datuak babesteko ordezkariaren helbide elektronikoa: dpo@lagunaro.es
Tratamenduaren helburua
LagunArorentzat interesgarriak diren eta sektore publiko eta pribatuarekin lotura daukaten pertsonen harremanak izateko datu profesionalak tratatuko ditugu, pertsona horiekin edo zerbitzuak ematen dituzten pertsona juridikoekin edozein eratako harremanak izateko. Lokalizazio profesionalerako behar diren datuak baino ez ditugu tratatuko.
Tratamenduaren legitimazioa
Datu pertsonalak interes legitimoan oinarrituta tratatuko dira, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.f) artikulua araberak.
Datuen jatorria
Interesduna. Erakunde publiko edo pribatuak.
Datuak komunikatzea
Legez ezarritako betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren erakunde publiko edo pribatuei jakinaraziko zaizkie datuak, legezko betebeharrak betetzean oinarrituta, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.c) artikulua araberak. Datuak jakin ahal izango zaizkie barne sistema informatikoak hornitzen dituen enpresari, papera suntsitzeko zerbitzua ematen duen enpresari eta kontaktuak behar bezala kudeatzeko behar den beste edozein enpresari, zeintzuek LagunAroren jarraibideak betez tratatuko dituzten datuak.
Nazioarteko transferentziak
Ez dago aurreikusita zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik.
Datuak gordetzea
Datuak gorde egingo dira pertsona fisikoak zerbitzuak ematen dion pertsona juridikoarekin harreman profesionala duen bitartean edo lanpostu profesional bera betetzen jarraitzen duen bitartean. Era berean, datuak tratatzearen ondorioz sor litezkeen erantzukizunen preskripzio aldietan ere gordeko dira datuak.
Eskubideak
Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeke eta lekualdatzeko, mugatzeko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, baita ere, dagokionean, zure datuen tratamendu automatizatu hutsean oinarritutako erabakien xede ez izateko, LagunAroko datuak babesteko ordezkariaren aurrean, helbide elektroniko honetara jota: dpo@lagunaro.es edo posta helbide honen bidez: Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua 1, PK 20500, Arrasate (Gipuzkoa). Uste baduzu zure eskubideak ez direla bete, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan erreklamazioa aurkezteko eskubidea daukazu.
Segurtasun neurriak

Datuak modu konfidentzian tratatuko dira eta neurri tekniko eta antolaketa neurri egokiak aplikatuko dira, baimenik gabeko edo legez kanpoko tratamenduaren aurkako eta datuen galera, suntsipen edo ustekabeko kaltearen aurkako babesaren barne, arriskuaren araberako segurtasun maila bermatzeko.